



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

# 2020KO URTEKO KUDEAKETA-PLANA

---

BEHIN-BEHINERAKO

2019ko azaroa

## AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	<b>¡Error! Marcador no definido.</b>
2.	2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK.....	4
3.	2020KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA.....	7
4.	2017-2030 ALDIRAKO PE-AREN ETA 2020KO UKP-AREN ARTEKO ERLAZIOA.....	8
5.	PROIEKTUEN DESKRIAPENA.....	9

BEHIN-BEHINEKOA



## 1. SARRERA

Dokumentu honetan aurkezten dugun 2020ko Urteko Kudeaketa Plana 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoan kokatzen da; Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2016ko urrian onartu zuten planean, hain zuzen.

Plan Estrategikoak (PE) IM eta SCPSArako epe luzerako, 2030erako, ikuspuntua eta muga taxutzen du, eta Urteko Kudeaketa Planak (UKP) proiektuen eta helburuen epe laburrerako zehaztapena dakar, urte baterako epean, ikuspuntu edo muga estrategiko horrekiko koherentzian.

Zehazki, Urteko Kudeaketa Planaren helburuak hauek dira:

1. Proiektu giltzarriak zehaztu eta erabakitzea, 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren ardatz eta erronka estrategiko desberdinen arabera.
2. Erakundeak bere gain hartzen dituen kudeaketa-konpromisoetarako buruko informazio zehatza eta gardena ematea, bai proiektuei bai eta aurreikusitako emaitzei dagokienez, aginte-taulako adierazleen bidez.
3. Kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa erraztea maila desberdinetan, gobernu-organotatik eta zuzendaritza-taldetaraino eta proiektu-taldeetaraino.
4. Informazio hori herritarrei helaraztea, Gardentasun Atariaren bidez.

Urteko Kudeaketa Plana, era berean, kudeaketaren segimendua eta ebaluazioa egiteko oinarria da. Erakundearen barnean aldi berean egiten diren berrikuspenez gain, formalki bi berrikuspen nagusi ezarri dira: sei hilean behingo bat, ekaineko amaiera-emaitzekin, eta beste bat ekitaldiaren amaieran, haren bidez gobernu-organoei proiektu bakoitzaren bilakaeraren eta lortutako emaitzen berri emate aldera.

Halaber, urtero, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoko planteamenduen berrikuspena eta doitzea egiten da, Urteko Kudeaketa Plan bakoitzaren garapenaren eta hartan izandako lorpen partzialen arabera. 2020an berrikuspen horrek garrantzi handiagoa izango du, Plan Estrategikoa hasi zenetik lau urteko epea igaro delako, batetik, eta 2019ko maiatzean egin ziren tokiko hauteskundearen emaitzen ondorioz, gobernu-organoen osiera aldatu edo berritu zelako, bestetik.

Azken batean, asmoa da Urteko Kudeaketa Planak eta dagozkion segimendu-txostenek erakundearen kudeaketaren aurrerapenaren ikuspegi global bat ematea, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoan adierazitako eta hartutako konpromisoekin bat eginda.



## **2. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK**

### **2.1. MISIOA**

Iruñerriko bizi-kalitatea hobetzean laguntzea, uraren, garraioaren, hondakinen eta Ibai Parkearen zerbitzuak kudeatuta.

### **2.2. 2030ERA KO IKUSPEGIA**

IM-SCPSA erreferentziatzeko erakunde gisa, eraginkortasunean, iraunkortasunean eta berrikuntzan.

### **2.3. BALIOAK**

#### **Gardentasuna eta hurbiltasuna**

Interes-taldeen premiekiko interesa agertzen dugu eta informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematen diegu, erakundeak bere misioa betetzean gauzatzen dituen prozesuen, erabakien eta emaitzen gainean.

#### **Profesionaltasuna eta konpromisoa**

Ahalik eta zorrotasun tekniko handienarekin lan egiten dugu, gutako bakoitzak bere onena emanda.

#### **Aurrerapena, malgutasuna eta bizkortasuna**

Gutaz espero dena ezagutu eta ikertzen dugu, aldaketara egokituta, eta planteatutako erronketara epean egokiak diren konponbideak eskaintzen ditugu.

#### **Koordinazioa eta talde-lana**

Norbanakoon ahaleginen batura baino gehiago gara, taldearen sendotasunean eta lanean elkarlanean aritzean sinesten dugu.

#### **Sormena**

Egiteko moduak zalantzan jartzen ditugu, eta aukera berritzaileak, eraginkorrak eta askiesgarriak bilatzen ditugu.



## 2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- **Lehen ardatz estrategikoa: Erakunde-esparrua (EE)**

Iruñean eta Iruñerrian zerbitzuak emateko eredu erkidetuak argi utzi du eraginkorra dela konponbide teknikoak eta ingurumenekoak ematean, duen ibilbideari dagokionez, eskura ditugun datu eta adierazleetan jasota gelditu den moduan. Kalitate handia eskaini da zerbitzuak ematean, eta gure esku dauden baliabideen erabilera iraunkorra egin dugu.

- **Bigarren ardatz estrategikoa: Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak (HH)**

Iruñerriko Mankomunitatea eragin sozial zabaleko arloetan murgilduta dago, ezinbestekoak diren zerbitzuak emanez, izaera teknologiko nabarmenarekin eta herritar guztiekin harreman zuzen eta egunerokoan. Horrenbestez, elkarlanerako espiritua, kanpora irekitzea eta gardentasuna oso bereziki zaindu behar dituen faktoreak dira.

- **Hirugarren ardatz estrategikoa: Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat (ZIH)**

Iruñerriko Mankomunitatearen osaketa eta garapena zuzenean lotuta egon da ingurumeneko arazo larriak konpontzeko premiarekin, besteak beste, urez hornitzea, kantitate nahikoan eta kalitate onean, hondakin-urak sanotzea, hondakinak bildu eta tratatzea, eta eskualdeko hiri-garraioaren zerbitzua ematea. Horrekin nabarmen hobetu da Iruñerriko ingurumena eta bertako biztanleen bizi-kalitatea.

- **Laugarren ardatz estrategikoa: Bultzada teknologikoa herritarren alde (BT)**

Teknologia oso azkar ari da aurrera egiten eta eraldaketa digitalak eragin handia du jarduera-esparru askotan, baita ematen ditugun zerbitzuetan ere, bai hautemandako kalitateari eta eraginkortasunari dagokionez, bai eta kostuari dagokionez ere. Hartara, bilakaera teknologiko hau herritarren alde aplikatu behar da.

- **Bosgarren ardatz estrategikoa: Pertsona antolatuen (PA)**

Erakundeko langileak benetako abiadura-palanka dira, motibazioa pizten duen ingurune batean eta ahalik eta gogobetetasun handienarekin, haien lanak ahalik eta kalitate handiena ekar diezaien ematen ditugun zerbitzuei.



Antolaketarako formatuek arinagoak izan beharko dute, ez hain hierarkikoak, eta lantaldeen bidez pertsonen parte-hartzean eta ekarpenetan oinarrituta egon beharko dute. Kudeaketa-sistemak aurreratua izan beharko du, eta jarduera eta proiektuen eta, era berean, emaitzen ikuspegi globala, integratua eta sistematikoa erraztu beharko du.

- **Seigarren ardatz estrategikoa: Baliabide ekonomikoak (BE)**

Eskumenak gauzatzean gaitasun osoa duen erakunde gisa taxututa dago IM, eta helburua du kalitateko zerbitzuak eta autosufizientzia ekonomikoa lortzea, erabiltzaileentzat eta, oro har, komunitatearentzat onargarria den kostu batean.

Ardatz estrategiko hauetako bakoitza **ERRONKA ESTRATEGIKO** desberdinetan hedatzen da, Urteko Kudeaketa Planeko proiektu zehatzak hartzen dituztenetan, laugarren atalean jasota dagoen moduan.

BEHIN-BEHINEKOA



### 3. 2020KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA

1.	HONDAKINAK MURRIZTEKO, BEREIZTEKO ETA BILTZEKO PLANA
2.	HONDAKINAK TRATATZEKO PLANA
3.	EHG-AREN KONTZESIOA ETA EHG-AREN PLANA 2020RAKO
4.	EHG-RAKO GARAJEAK
5.	GARRAIOA ORDAINTEZKO ETA KARGATZEKO ERA BERRIAK
6.	URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA TEKNIFIKATZEA
7.	MANKOMUNITATE NEUTROA, KARBONOARI DAGOKIONEZ, 2030ERAKO
8.	GARAPEN PROFESIONALERAKO PROGRAMA
9.	IM ETA SCPSA-REN BERRIKUNTZA-PLANA ETA TEKNOLOGIKOA
10.	ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMA (ERP) / SISTEMEN PLAN ZUZENTZAILEA
11.	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA
12.	SCPSA-REN AZPIEGITURAK GARATZEA, 2020
13.	EGOITZA BERRIA



#### 4. 2017-2030 ALDIRAKO PE-AREN ETA 2020KO UKP-AREN ARTEKO ERLAZIOA

PLAN ESTRATÉGICO DE MCP/SCPSA 2017 - 2030			PLANES DE GESTIÓN ANUAL 2020												
RETOS ESTRATÉGICOS			1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
			PLAN DE REDUCCIÓN, SEPARACIÓN Y RECOLECCIÓN DE RESIDUOS	PLAN DE TRATAMIENTO DE RESIDUOS	CONEXIÓN TUC PLAN TIC 2020	COORINATUC	MEJORA SOSTENIBLES DE ECONOMÍA Y PAJO DEL TRANSPORTE	TECNIFICACIÓN INTEGRAL DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA	MANCOMUNIDAD NEUTRA EN CARBONO 2030	PROGRAMA DE DESARROLLO PROFESIONAL	PLAN DE INNOVACIÓN Y TECNOLOGÍA DE MCP/SCPSA	PROYECTO	ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA	EFICIENCIA EN INFRAESTRUCTURAS SCPSA 2020	NEUTRA 2030
RELACIÓN CON LA CIUDADANÍA	RC 1	INTEGRACIÓN Y REFUERZO DE RELACIONES CON LOS GRUPOS DE INTERÉS: SOCIEDAD, INSTITUCIONES Y ORGANISMOS, UNIVERSIDADES, CENTROS DE INVESTIGACIÓN, ASOCIACIONES, ETC.													
	RC 2	PROFUNDIZAR EN LA TRANSPARENCIA COMO FACTOR DE CAMBIO, DESARROLLO Y MEJORA DE RELACIONES CON LA CIUDADANÍA													
	RC 3	POTENCIAR LA IMPLICACIÓN DE LA CIUDADANÍA, ARTICULANDO PROCESOS EFECTIVOS DE PARTICIPACIÓN													
	RC 4	IMPULSAR LA IMAGEN DE MCP/SCPSA BASADA EN LA APUESTA POR LA SOSTENIBILIDAD Y LA RESPONSABILIDAD SOCIAL CORPORATIVA													
SERVICIOS SOSTENIBLES	CICLO INTEGRAL AGUA Y PARQUE FLUVIAL	SSCA 1	PREVER, EJECUTAR Y MANTENER LAS INFRAESTRUCTURAS DEL CIA NECESARIAS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO, MAXIMIZANDO SU VIDA ÚTIL												
		SSCA 2	GESTIÓN EN TIEMPO REAL DEL ABASTECIMIENTO CON LA INTEGRACIÓN DE LA TELELECTURA DE CONTADORES												
		SSCA 3	REDUCCIÓN DE VERTIDOS/ALIVIOS A CAUCES DE AGUAS CONTAMINADAS Y PLUVIALES SIN TRATAR												
		SSCA 4	EVOLUCIÓN EN TRATAMIENTOS DE AGUA DE ABASTECIMIENTO Y DEPURACIÓN												
		SSCA 5	PARQUE FLUVIAL: AMPLIACIÓN e INTEGRACIÓN COMO EJE DE MOVILIDAD COMARCAL SOSTENIBLE												
	RESIDUOS	SSCR 1	REDUCCIÓN DE RESIDUOS Y MAXIMIZAR SEPARACIÓN EN ORIGEN												
		SSCR2	RECOGIDA DE RESIDUOS EFICIENTE, POR OBJETIVOS Y SOSTENIBLE												
		SSCR 3	TRATAMIENTO Y VALORIZACIÓN DE LOS RESIDUOS PARA MINIMIZAR EL VOLUMEN DE VERTIDO FINAL. EJECUCIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS / INSTALACIONES DE RESIDUOS												
	TRANSPORTE	SSCT 1	IMPULSAR Y RESPALDAR DESDE MCP UN NUEVO MODELO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE EN LA COMARCA DE PAMPLONA												
		SSCT 2	TRANSPORTE PÚBLICO DE CALIDAD Y AVANZADO TECNOLÓGICAMENTE												
		SSCT 3	SECTOR DEL TAXI. MODERNIZACIÓN, SOSTENIBILIDAD, REGULACIÓN y OPTIMIZACIÓN												
	CAMBIO CLIMÁTICO	SSCC 1	MANCOMUNIDAD NEUTRA EN CARBONO EN 2030												
	IMPULSO TECNOLÓGICO	IT 1	CONTAR CON UN PLAN TECNOLÓGICO DE MCP/SCPSA												
IT 2		GESTIÓN INTERNA TECNOLÓGICA. DESARROLLO DE PROYECTOS TECNOLÓGICOS TRANSVERSALES Y ESTRUCTURANTES A MEDIO PLAZO													
IT 3		CLIENTES Y SERVICIOS BASADOS EN LA TECNOLOGÍA. DISEÑAR Y ESTABLECER UNA ESTRATEGIA DE SERVICIOS INTELIGENTES, ORIENTADOS A LA CIUDADANÍA, ALINEADOS CON 'SMART CITIES NAVARRA'													
IT 4		LA "CIBERSEGURIDAD" COMO UN NUEVO CAMPO TECNOLÓGICO CON ÁMBITO PROPIO DENTRO DE LA ORGANIZACIÓN.													
PERSONAS ORGANIZADAS	PO 1	DISPONER DE UN MARCO DE TRABAJO PARA LOS RRHH QUE INCLUYA: LA PREVISIBLE EVOLUCIÓN ORGANIZATIVA Y TECNOLÓGICA, EL RELEVO GENERACIONAL/RENOVACIÓN DE PLANTILLA Y EL CONJUNTO DE POLÍTICAS EN ORGANIZACIÓN Y RRHH													
	PO 2	APOYAR EL DESARROLLO PROFESIONAL, INCLUYENDO EL EJERCICIO DEL LIDERAZGO													
	PO 3	CONTAR CON UN MARCO DE RELACIONES LABORALES BASADO EN EL CONVENIO COLECTIVO PROPIO, QUE SEA ACORDE CON LA CULTURA DE LA EMPRESA Y LA GESTIÓN AVANZADA A TRAVÉS DE SU PLANTILLA													
	PO 4	LOGRAR UNA ORGANIZACIÓN MÁS FLEXIBLE, ÁGIL Y TRANSVERSAL, COHERENTE CON LOS RETOS ESTRATÉGICOS SOPORTADA EN UN SISTEMA DE GESTIÓN AVANZADA													
	PO 5	NUOVA SEDE DE MCP / SCPSA													
RECURSOS ECONÓMICOS Y CONTRATACIÓN	RE 1	PLAN ECONÓMICO-FINANCIERO DE MCP/SCPSA, QUE REFLEJE EL EQUILIBRIO e INDEPENDENCIA ECONÓMICA, MEDIANTE UN MARCO TARIFARIO/DE FINANCIACIÓN ESTABLE													
	RE 2	REFORZAR EL SISTEMA DE CONTRATACIÓN PÚBLICA CON VISIÓN A LARGO PLAZO, INCORPORANDO LOS ENFOQUES DE LA COMPRA PÚBLICA INNOVADORA Y COMPRA PÚBLICA VERDE.													



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## 5. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA

BEHIN-BEHINEKOA



<b>1. UKP</b>	<b>HONDAKINAK MURRIZTEKO, BEREIZTEKO ETA BILTZKO PLANA</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIHH). 1. ZIHH ERRONKA. Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea maximizatzea. 2. ZIHH ERRONKA. Hondakinen bilketa eraginkorra egitea, helburuen araberakoa eta iraunkorra.	
<b>XEDEA</b>	Frakzioetako bakoitzean hondakin desegokien minimizatzeko eta bereizte-tasak handitzea, arreta berezia jarrita frakzio organikoari dagokionean.  Nafarroako Hondakin Planean ezarrita dauden helburuak lortzea.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Sartze-kontrola duten edukiontziak hedatzea: I. fasea (udazkena): herritarren %12,5.	%50
	II. fasea lizitatu eta kontratatzea.	%25
	Landa-arloan garbiguneak eta arropa-edukiontziak zabaltzea.	%25
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Carmen Lainez Larragueta, Hondakinen Arloko zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Hondakinak, Komunikazioa, Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, Informazioaren Teknologiak.	
<b>EPEA</b>	2019-2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	6,5 M€ (sartze-kontrola duten edukiontziak hedatzea). 494.000 € (komunikazio-kanpaina). 190.000 € (arropa-edukiontziak).	
<b>OHARRAK</b>	Sartze-kontrola hedatzeak berekin dakar aurretik hondakinen ordenantza egokitzea. I. faseak bi bloke ditu, 2020an (udazkena) eta 2021ean (udaberria) garatu beharrekoak. II. faseak Iruñerriko hiri-eremuan ondoz ondo hedatzea jasotzen du.	



2. UKP	HONDAKINAK TRATATZEKO PLANA	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIHH). 3. ZIHH ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak eta instalazioak gauzatzea.	
<b>XEDEA</b>	“Gai organikoen”, “Ontzien eta materialen” eta “Gainerakoen” frakzioak tratatzeko instalazioa martxan jartzea.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Aurreproiektua amaitzea.	%60
	Lizitazioa eta kontratatzea onartzea.	%35
	Lanak hastea.	%5
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Martínez Reguera, zuzendari kudeatzailea.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Zuzendaritza-Kudeatzailetza, Hondakinak, Azpiegiturak, Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak.	
<b>EPEA</b>	2019-2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	45-55 M €.	
<b>OHARRAK</b>	Aurreproiektua amaitu eta gero jakingo da behin betiko aurrekontua.	



3. UKP	EHG-AREN KONTZESIOA ETA EHG-AREN PLANA 2020RAKO	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG).</p> <p>2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez.</p> <p>3. ZIHG ERRONKA. Taxiaren arloa. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa</p> <p>4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT).</p> <p>3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrotatuak.</p>	
<b>XEDEA</b>	<p>Egungo kontratuaren luzapena amaitzean, EHGaren kontzesio berria edukitzea (ziur aski, 2020ko abenduaren 31n).</p> <p>Garraio Plan berria edukitzea, egungoa (2017-2019) amaitzean. Garraio publikoa eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko estrategia berria bultzatuko du, EHGaren beharretarako administrazio publikoen ekarpen nahikoak bermatuta. Barne hartuko du gaueko garraio-sare berria, eskuragarriagoa, eta eskaeraren araberako taxi-zerbitzu erregularrak.</p>	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	<b>Kontzesio berria.</b>	
	Lehiaketa onartzea.	%30
	Lehiaketa esleitzea.	%30
	Esleipendun berriak kontratua hasteko beharrezkoak diren jarduketak gauzatzea.	%10
	<b>EHGaren VII. Plana, 2020.</b>	
	Planaren ildo nagusiak ezartzea.	%10
	Planaren proiektua onartzea.	%10
	EHGaren plana onartzea.	%10
	<b>%100</b>	
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Garraioa, IMko Aholkularitza Juridikoa, IM Kontu-hartzailtza.	
<b>EPEA</b>	2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	E/A.	
<b>OHARRAK</b>		



4. UKP	EHG-RAKO GARAJEAK	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG). 2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez.	
<b>XEDEA</b>	EHGaren flotarako garaje berriak edukitzea, zerbitzuak etorkizunean izango dituen premietarako egokiak.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Analisi juridikoak, teknikoak eta hirigintzakoak, Agustindarren lursaileko konponbidearen gainean.	%60
	Aztertutako konponbidea Iruñeko Udalarekin bultzatzea.	%20
	Proiektuaren programazio orokorra ezartzea.	%20
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Garraioa, Mankomunitatea.	
<b>EPEA</b>	2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	170.000 € (2020).	
<b>OHARRAK</b>	Beste administrazio batzuen erabakien eta hirigintzako izapidetzeak duen konplexutasunaren mende dago.	



<b>5. UKP</b>	<b>GARRAIOA ORDAINTEKO ETA KARGATZEKO ERA BERRIAK</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG).</p> <p>2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez.</p> <p>3. ZIHG ERRONKA. Taxiaren arloa. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa.</p> <p>4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT).</p> <p>3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrotatuak.</p>	
<b>XEDEA</b>	Garraio-zerbitzua teknologikoki hobetzea, progresiboki sartuta zerbitzua hobeki emateko sistema eta baliabide aurreratuak (EHGa eta Taxia).	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	II. faseko proiektua diseinatzea: birkarga telematikoa, EMV banku-txartelarekin ordaintzea eta QR kodeen bidez ordaintzea.	%30
	Garraio-txartelaren birkarga telematikoa kontratatzea.	%40
	Birkarga telematikoa ezartzea.	%30
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Garraioa, Informazioaren Teknologiak.	
<b>EPEA</b>	2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	Birkarga telematikoaren aurrekontua Logistari esleitutako birkarga-sarearen kosturako orain aurreikusitako aurrekontuaren (620.280,53 € 2020an) zati bat izango da, birkarga telematikoaren bidez egiten diren eragiketak ez baitira saltokien sarean egingo. Komunikazio-kanpaina: 40.000 €.	
<b>OHARRAK</b>	Garraio Planean sartuta dago.	



<b>6. UKP</b>	<b>URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA TEKNIFIKATZEA</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI PARKEA (ZIHU).</p> <p>1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZiren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haien eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta.</p> <p>2. ZIHU ERRONKA. Horniduraren denbora errealeko kudeaketa, kontagailuen teleirakurketa sartuta.</p> <p>4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT).</p> <p>3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrokatuak.</p> <p>6. ARDATZA. BALIABIDE EKONOMIKOAK (BE).</p> <p>1. BE ERRONKA. IM eta SCPSAren ekonomia-finantza plana, oreka eta independentzia ekonomikoa islatuko duena, tarifen/finantzaketaren esparru egonkor baten bidez.</p>	
<b>XEDEA</b>	Horniduraren kudeaketa analitikoaren eta denbora errealekoaren garapen teknologikoa, barnean hartuta ekoizpena, banaketa eta horniketa.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Teleirakurketa. Proben ebaluazioa. Konponbide teknologikoa diseinatzea sentsoreetarako, komunikazioetarako, plataformarako eta zerbitzuko aplikazioetarako.	%30
	Sistema aditua garatzea, UZiren sareak kudeatu eta haien plangintza egiteko.	%40
	Lehorte-egoeretarako larrialdi plana eguneratzea, TEC/1399/2018 Aginduaren arabera.	%30
	<b>%100</b>	
<b>ARDURADUNA</b>	Javier Horcada Lautre, Uraren Ziklo Integralaren zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	UZI, Plangintza, Bezeroak, Informazioaren Teknologiak.	
<b>EPEA</b>	2020 eta hurrengoak.	
<b>AURREKONTUA</b>	150.000 €.	
<b>OHARRAK</b>	2019an, NB-IoT teknologiarekin probak egiten hasi zen.	



7. UKP	MANKOMUNITATE NEUTROA, KARBONOARI DAGOKIONEZ, 2030ERAKO	
ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT: KLIMA-ALDAKETA. (ZIHK). 1. ZIHK ERRONKA. Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030ean.	
XEDEA	2030erako Iruñerriko Mankomunitatea, karbonoari dagokionez, neutroa izatea lortzea.	
HELBURUAK		<b>Ponderazioa</b>
	Karbono-aztarna kalkulatu eta zertifikatzea (2019).	%15
	2019ko karbono-aztarna zati batean konpentsatzea, 'xurgatzeak' eskuratuta (igortzeko eskubideak).	%5
	IM-SCPSAren hondar karbono-aztarna konpentsatzeko proiektua, basogintzako jarduketan-izurbide propioen bidez.	%10
	Flota berritzea, flota propio elektrikoaren, GNKren eta SIMZeko gasineraren plangintzaren arabera.	%10
	EHGko eta hondakinetakoko gasolio bidezko ibilgailuak energia alternatiboak erabiltzen dituztenekin ordeztzeko proiektua idaztea.	%20
	IM eta SCPSAren Klima Aldaketako Estrategia eta Estrategia Energetikoa onartzea.	%40
ARDURADUNA	Álvaro Miranda Simavilla, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.	
INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK	Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, EHG, Hiri-hondakinak, UZI, Ingurumena eta Zerbitzu Nagusiak.	
EPEA	2020.	
AURREKONTUA	49.000 €.	
OHARRAK		



8. UKP	GARAPEN PROFESIONALERAKO PROGRAMA	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 2. PA ERRONKA. Garapen profesionala laguntzea, barnean hartuta lidergoa gauzatzea. 3. PA ERRONKA. Lan-harremanen esparru bat edukitzea, erakundeko hitzarmen kolektiboan oinarritutakoa, enpresaren kulturarekin eta, plantillaren bidez, kudeaketa aurreratuarekin bat datorrena.	
<b>XEDEA</b>	Erakundeko pertsonen kudeaketa garatzea eta hari eustea, bai beren ezagutzei eta gaitasunei dagokienez, bai eta enpresarekiko duten konpromisoari dagokienez, barnean hartuta lidergoa gauzatzea.	
<b>HELBURUAK</b>	Programa progresiboki hedatzen joatea enpresan: UZI osatu, Garraioa, Informazioaren Teknologiak, Giza Baliabideak eta Antolaketa.	<b>Ponderazioa</b>  %70
	Lidergoaren banakako neurketa Zuzendaritza Batzordeko lanpostuetan: prozedura, banakako txostenaren eta txosten kolektiboaren eredia, ebaluatzaileak hautatzea eta egitea. Eraitzen analisia eta banakako eta taldekako hobekuntza-planak.	%30
		%
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Teresa Azcona Calahorra, Giza Baliabideen zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Giza Baliabideak, Antolaketa, Zuzendaritza-Kudeatzailetza. Enpresako sailak.	
<b>EPEA</b>	2020 eta hurrengoak.	
<b>AURREKONTUA</b>	10.000 € (lidergoa neurtzeko programan laguntza emateko aholkularitza).	
<b>OHARRAK</b>	Diseinua eta lehen esperientzia pilotua 2018-2019 aldian garatu dira. Progresiboki hedatzen joatea: 2019-2022.	



<b>9. UKP</b>	<b>IM ETA SCPSA-REN BERRIKUNTZA-PLANA ETA TEKNOLOGIKOA</b>	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 1. BT ERRONKA. IM eta SCPSAren plan teknologikoa edukitzea.	
<b>XEDEA</b>	Berrikuntza-prozesu sistematikoari eustea IM-SCPSAn, eta ekimen teknologikoei eta estrategikoei heltzea epe ertain eta luzean.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Berrikuntzako eta garapeneko hiru barne-proiektu hastea, eta, gutxienez, berrikuntza-proiektu bat kanpoko parte-hartzearekin.	%30
	STARDUSTeko garapena: linea elektrikoaren segimendua eta gauzatzea Egillorren (bero-ponpa).	%25
	IDÉATE: onartutako iradokizunak epean ezartzea %100ean.	%10
	Plan Teknologikoa idazten amaitzea.	%35
	<b>%100</b>	
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Miranda Simavilla, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoak, eta erakundeko gainerako kideak.	
<b>EPEA</b>	2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	95.000 €.	
<b>OHARRAK</b>		



10. UKP	ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMA (ERP) / SISTEMEN PLAN ZUZENTZAILEA	
ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 1. BT ERRONKA. IM eta SCPSAren plan teknologikoa edukitzea. 2. BT ERRONKA. Barne-kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.	
XEDEA	Enpresa kudeatzeko sistema bat edukitzea (ERP), enpresaren negozio-arlo gehienaren prozesuak eta informazioa integratzeko bidea emango duena, informazioaren teknologien bilakaeraren esparru orokorraren barnean.	
HELBURUAK		<b>Ponderazioa</b>
	Informazioaren teknologien plan zuzentzailea garatzea: <ul style="list-style-type: none"><li>• IT Batzordea sortzea.</li><li>• Smart City eta IoT estrategia garatzea.</li><li>• IT saila prozesuen araberako kudeaketa baterantz bideratzea.</li></ul>	%20
	Enpresa kudeatzeko sistema: plegua idaztea.	%30
	Enpresa kudeatzeko sistema: lizitazioa eta esleitzea.	%40
	Enpresa kudeatzeko sistema: ezartzea.	%10
		<b>%100</b>
ARDURADUNA	Felipe Alonso Rodríguez, Informazioaren Teknologien zuzendaria.	
INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK	Finantzak eta Erosketak, Azpiegiturak, Bezeroak, Antolaketa eta Giza Baliabideak.	
EPEA	Enpresa kudeatzeko sistema: aholkularitza, 2019; ezartzea, 2019-2021. Sistemen plan zuzentzailea garatzea: 2019-2022.	
AURREKONTUA	336.000 € (2020).	
OHARRAK		



11. UKP	ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak.	
<b>XEDEA</b>	Kudeaketaren eraginkortasuna handitzea, herritarrei ematen ditugun zerbitzuekin lotutako izapideetarako sarbide elektronikoa erraztuta, haiek sinplifikatuta eta arinduta, administrazio elektronikoko prozesuak eta aplikazioak ezartzearen bidez, eta erakundea herritarrekin lan egiteko modu honetara egokituta 2020ko helmenarekin.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Idazkaritzako modulua sendotzea SCPSAko Administrazio Kontseiluaren saioetarako.	%15
	Elkarreragingarritasunaren bilakaera, egiaztatze-zerbitzu berriekin eta datuen kontsulta Espainiako beste administrazio publiko batzuei.	%20
	Kontratatzeko-prozedurak berriro diseinatu eta sendotzea (Plenarekin integratzea).	%25
	Espediente edo txosten elektronikoa ezartzea. Tresna elektroniko desberdinak hedatu eta haien prestakuntza ematea: prozedurak modelizatzea, ziurtagiri elektronikoa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoak, izapidetze elektronikoa.	%30
	Artxibo elektronikoaren analisia.	%10
	<b>%100</b>	
<b>ARDURADUNA</b>	Felipe Alonso Rodríguez, Informazioaren Teknologien zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Denak. Bereziki: IM, Bezeroak, eta Finantzak eta Erosketak (kontratatzeko prozesua).	
<b>EPEA</b>	2019-2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	90.000 €.	
<b>OHARRAK</b>		



12. UKP	SCPSA-REN AZPIEGITURAK GARATZEA, 2020	
<p><b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b></p>	<p>3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA (ZIHU).            1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZiren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bitzta erabilgarria maximizatuta.            3. ZIHU ERRONKA. Ibilguetara egiten diren tratatu gabeko ur kutsatuen eta euri-uren isurketak murriztea.            5. ZIHU ERRONKA. Ibai Parkea. Zabaltzea eta integratzea, eskualdeko mugikortasun iraunkorrerako ardatz moduan.            3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH).            3. ZIHU ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak edo instalazioak gauzatzea.</p>	
<p><b>XEDEA</b></p>	<p>Proiektuak idaztea eta lanak gauzatzea, beren denbora-programazioaren arabera, SCPSAren 2020rako aurrekontuetan zehaztutakoak, garrantzi handiena dutenak lehenetsita.            Alternatiba desberdinak aplikatzeko aukera aztertzea, eta SDU deskarga unitarioko sistemen esperientzia bat ezartzea.</p>	
<p><b>HELBURUAK</b></p>		<p><b>Ponderazioa</b></p>
	GOI-HORNIDURA. IMren eremua.	%11,8
	GOI-HORNIDURA. Eremu mugakideak.	%0,0
	GOI-SANEAMENDUA.	%35,0
	TOKIKO SAREAK. HORNIDURA ETA SANEAMENDUA.	%31,7
	HONDAKINAK.	%0,0
	IBAI-PARKEA .	%13,3
	ERAIKINAK eta BESTE BATZUK.	%8,2
		<b>%100</b>
<p><b>ARDURADUNA</b></p>	<p>Juan Ramón Ilarregui Tejada, Azpiegituren zuzendaria.</p>	
<p><b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b></p>	<p>Azpiegiturak, UZI, Hondakinak, Ingurumena eta Kalitatearen Kontrola.</p>	
<p><b>EPEA</b></p>	<p>2020-2021.</p>	
<p><b>AURREKONTUA</b></p>	<p>Irakurri eranskina.</p>	
<p><b>OHARRAK</b></p>	<p>Beren garrantziarengatik, ez dira sartzen UKP honetan berriazko UKPetan isla duten proiektu bereziak (hondakinen tratamendua eta egoitza berria).</p>	



12. UKP	SCPSA-REN AZPIEGITURAK GAUZATZEA, 2020 (ERANSKINA)	
Amaitzeko urtea	JARDUKETAK	Ponderazioa UKParen gainean
	<b>GOI-HORNIDURA. IMren eremua.</b>	<b>%11,80</b>
2020	AZOTZ HORNITZEA (KONPONBIDEA TXULAPAINGO LINEATIK).	%7,45
2020	URTASUNGO EUTE BERRITZEA, II. FASEA: DEKANTAZIO-TANGAK.	%4,31
2020	URTASUNGO EUTE BERRITZEA, III. FASEA: PRODUKTU KIMIKOAK BILTEGIRATZEA.	%0,03
	<b>GOI-HORNIDURA. Eremu mugakideak.</b>	<b>%0,00</b>
	<b>GOI-SANEAMENDUA.</b>	<b>%35,01</b>
2020	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA SARATSATEN.	%1,64
2021	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA GARTZIRIAINEN ETA OLLAKARIZKETAN.	%1,87
2020	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA ASIAIN-IZUN.	%6,90
2020	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA USTARROTZEN.	%1,37
2020	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA ARGIÑARITZEN.	%1,37
2020	ROBO IBAIAREN SANEAMENDUA, II. FASEA (LEGARDA, UTERGA ETA MURUZABAL).	%11,69
2020	SANEAMENDU-INSTALAZIOAK ERABERRITZEA IMARKOINGO HONDAKIN-UREN PONPAZE-ESTAZIOAN.	%2,21
2021	ARANGUREN IBAREKO HUSTUBIDEA BERRITZEA.	%7,96
	<b>TOKIKO SAREAK. HORNIDURA ETA SANEAMENDUA.</b>	<b>%31,69</b>
2020	HORNIDURA ORVINA SEKTORERA, BOLBORATEGIKO BILTEGITIK.	%1,48
2020	HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO SAREAK BERRITZEA ETXARRI-ARANATZ ETA MILAGRO KALEEN ARTEAN.	%3,43
2020	SAREAK BERRITZEA ARROTXAPEAN. ARGIA IBAIAREN ESKUINEKO ERTZEAN, OBLATEN ZUBIAREN INGURUAN (IRUÑEA).	%9,02
2020	SAREAK BERRITZEA ETXABAKOITZEN (IRUÑEA).	%6,27
2020	SAREAK BERRITZEA BURLATAN. SAN JOAN BATAIATZAILEA KALEAREN INGURUAN.	%3,73
2020	D400 HODIA BERRITZEA ZARAGOZAKO ETORBIDEAN (CORDOVILLA INGURUAN).	%7,76
	<b>HONDAKINAK.</b>	<b>%0,00</b>
	<b>IBAI-PARKEA.</b>	<b>%13,31</b>
2020	ARAZURI-IBERO ZATIA.	%13,31
	<b>ERAIKINAK eta BESTE BATZUK.</b>	<b>%8,19</b>
2020	ESTALKIA IRAZGAITZ BIHURTZEA GAZOLAZKO BILTEGIAN.	%1,99



2020	ESTALKIA IRAZGAITZ BIHURTZEA TRATATUTAKO URAREN BILTEGIAN, EGILLORKO EUTE-N.	%3,47
2020	ESTALKIA BERRITZEA GARRAIOAREN HIRIKO NABEAN.	%2,73
		<b>%100,00</b>

BEHIN-BEHINEKOA



13. UKP	EGOITZA BERRIA	
<b>ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 5. PA ERRONKA. IM eta SCPSAren egoitza berria.  1. ARDATZA. HERRITARREKIKO HARREMANAK (HH) 1. HH ERRONKA. Interes-taldeekiko harremanak integratzea eta sendotzea: gizartea, erakundeak, unibertsitateak eta ikerketa-zentroak, profesionalen elkarteak...	
<b>XEDEA</b>	IM-SCPSAren egoitza bateratua hartuko duen eraikin bat izatea, herritarrei arreta egiteko, administraziorako eta erakunde-egoitzarako guneak barnean hartuko dituena.	
<b>HELBURUAK</b>		<b>Ponderazioa</b>
	Kontratua sinatzea.	%20
	Obrak hasi eta garatzea (plangintzaren arabera).	%50
	Lekualdatze-proiektua diseinatzea 2022.	%30
		<b>%100</b>
<b>ARDURADUNA</b>	Juan Ramón Ilarregui Tejada, Azpiegituren zuzendaria.	
<b>INPLIKATUTA DAUDEN SAILAK</b>	Zuzendaritza-Kudeatzailatza, Azpiegiturak, Antolaketa, Zerbitzu Nagusiak, Informazioaren Teknologiak.	
<b>EPEA</b>	2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	15,5 M€.	
<b>OHARRAK</b>	Obra esleitzea 2019an aurreikusita. Lekualdatze-proiektua 2020ko bigarren seihilekoan.	